AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

713

118/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Enrique Maiz Olazabalaga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 624/2010 Ebazpenaren bidez (martxoaren 11ko 48. EHAA), Enrique Maiz Olazabalaga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari gerente izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Enrique Maiz Olazabalaga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari gerente kargutik kentzea, eta egindako zerbitzuengatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Barrualdeko Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.